

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### DIPUTATU NAGUSIA

#### Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa

*Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardueretarako Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak.*

Diputatuen Kontseiluak, 2021eko abenduaren 15eko bileran, honako erabakia hartu du:

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, ezartzen du foru administrazioei dagokiela sentsibilizazio jarduerak egitea; toki erakundeak bitarteko materialerik eta ekonomikoz eta giza baliabideez hornitzea, berdintasuna erdiesteko diseinatzen diren programak eta jarduerak garatu ahal izateko; baita baliabideak eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea ere, bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen lagundu dezaten.

Halaber, martxoaren 9ko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak 18. artikuluan ezartzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren jardura esparruetako bat izango dela berdintasunerako tokiko politika publikoak sustatzea, eta bere funtzioak izango direla laguntza ematea tresna arauemaileak eta tokiko proiektu estrategikoak sortzeko.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak dirulaguntza deialdi bat egiten du urtero 2008. urteaz geroztik, dirulaguntzak emateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten proiektuei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta mankomunitateek aurkeztutakoak. Orain proposatzen da onartzea laguntza horien oinarri arautzaile berriak, eta 2022. urteko deialdia.

Aurreko urteetan bezala, berariazko bi dirulaguntza lerro aurreikusten dira, lehentasunezko esku-hartze eremuak lotutako proiektuak izan, edo udaletako ahalizate espazioen jardura gisa konfiguraturako proiektuak izan. Berritasun gisa, nabarmendu behar da erakundeek dirulaguntzen lerro horietan parte hartu ahal izateko bete beharreko baldintzak birdefinitu direla.

Horretarako, aurretiazko tramitazioari jarraituz bideratu da dagokion espedienteak, 37/2006 Foru Dekretuak, abuztuaren 2koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren kargurako gastu espedienteen aurretiazko tramitazioari buruzkoak, 5. artikuluan ezarritakoa betez. Ondorioz, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den uanean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2022rako aurrekontu orokorretan.

Dirulaguntza horiek ez dira estatu laguntzak, Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 107.1 artikuluan ezarritakoren arabera, lehia ez baitute faltsutzen –ez faltsutzeko mehatzatzen– eta ez baitio eragiten estatu kideen arteko merkataritzari; hori horrela, salbuetsita dago aipatu Itunaren 108.3 artikulua ezarritako jakinarazpen prozeduratik.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DIPUTADO GENERAL

#### Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

*Bases reguladoras y convocatoria de 2022 para la concesión de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 15 de diciembre de 2021, ha adoptado el siguiente acuerdo:

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, establece que corresponden a las administraciones forales funciones de sensibilización, de dotar a las entidades locales de recursos materiales, económicos y personales para el desarrollo de programas y actividades dirigidas a la consecución de la igualdad, así como de establecer recursos y servicios socio comunitarios tendentes a favorecer la conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

Además, la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, en su artículo 18 establece que una de las áreas de actuación del Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres será el fomento de las políticas públicas locales para la igualdad y que tendrá como funciones el apoyo a la generación de instrumentos normativos y a los proyectos estratégicos locales.

En este contexto, la Diputación Foral de Gipuzkoa viene realizando desde el año 2008 una convocatoria anual para el otorgamiento de subvenciones a proyectos que fomenten la igualdad de mujeres y hombres para ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En este momento, se propone la aprobación de unas nuevas bases reguladoras, y de la convocatoria de dichas ayudas para el año 2022.

Como en años anteriores, se contemplan dos líneas específicas de subvenciones, según se trate de proyectos que estén ligados con las áreas de intervención prioritarias o configurados como actividades de los espacios de empoderamiento municipales. Como novedad cabe destacar que se han redefinido los requisitos de las entidades para poder participar en estas líneas de subvenciones.

A tal fin, se instruye el correspondiente expediente de tramitación anticipada de conformidad con lo dispuesto por el artículo 5 del Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto, sobre tramitación anticipada de expedientes de gasto con cargo a los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. En consecuencia, la concesión de subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para 2022 en el momento de la resolución de la concesión.

Las presentes subvenciones no constituyen ayuda estatal en los términos establecidos en el apartado 1 del artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que no faltaría –ni amenaza con faltar– la competencia ni afecta al comercio entre estados miembros; por tanto, queda excluida del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

Dirulaguntza lerro hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta daude (DPE).

Horrenbestez, Diputatuen Kontseiluak, diputatu nagusiak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jardueretarako Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei eta mankomunitateei zuzendutako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikokoak, erabaki honen I. eranskinean jasotzen direnak.

*Bigarren.* Onestea dirulaguntza horien 2022ko deialdia, erabaki honen II. eranskinean ageri den gisan, eta deialdi horri dagokion gastu espedientearen alde aurreko tramitazioa.

Dirulaguntza hauen deialdiaren zenbateko osoa laurehun mila euro (400.000 €) da, lehen aipatutako II. eranskinean adierazten diren kontu sailen kargura.

Edonola ere, deialdi honi dagokion gastu espedientearen alde aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorretan.

*Hirugarren.* Diputatu nagusiari ahalmena ematen zaio Gipuzkoako Lurralde Historikokoaren 2022. urterako Aurrekontu Orokorrek onesten direnean deialdiari dagokion gastua baimen denez, behar adina kreditu egokia dagoela egiaztatzen ostean.

*Laugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez dezakete administrazioarekiko auzietako Donostiako epaitegietan, erabakia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsioa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsio aurkez daiteke.

Donostia, 2021eko abenduaren 17a.—Juan José de Pedro Alonso, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaria. (8106)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udal eta Mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzen duten jarduketarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak.*

1. Xedea.

1. Oinarri hauen xedea da arautzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko dirulaguntzak, udalei –banaka eta/edo bat baino gehiago batera aurkeztuta– eta mankomunitateei zuzendutakoak, proiektuak gauza ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikaren esparruan.

2. Laguntzak banatuko dira jarraian adierazten diren modalitateen arabera. Modalitate bakoitzaren oinarri arautzaile espezifikokoak eranskinetan doaz:

Estas líneas de subvenciones están incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa (PES).

Por consiguiente, a propuesta del diputado general, el Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras generales y específicas para el otorgamiento de las subvenciones destinadas a ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres, que se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria para el 2022 de dichas subvenciones, que se acompaña al presente acuerdo como anexo II, así como la tramitación anticipada del correspondiente expediente de gasto.

La convocatoria de las presentes subvenciones alcanza un importe global de cuatrocientos mil euros (400.000 €), con cargo a las partidas presupuestarias que se indican en el anexo II antes citado.

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente de gasto, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022 en el momento de la resolución de la concesión.

*Tercero.* Se faculta al diputado general para autorizar el gasto correspondiente a la convocatoria de las presentes subvenciones, una vez aprobados los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2022 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 17 de diciembre de 2021.—El secretario del Área del Diputado General, Juan José de Pedro Alonso. (8106)

ANEXO I

*Bases reguladoras generales para el otorgamiento de subvenciones destinadas a Ayuntamientos y Mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa para actuaciones que fomenten la igualdad de mujeres y hombres.*

1.<sup>a</sup> Objeto.

1. Es objeto de las presentes bases regular el otorgamiento de subvenciones en materia de igualdad de mujeres y hombres destinadas a ayuntamientos –concurriendo individualmente y/o conjuntamente más de uno– y mancomunidades para la ejecución de proyectos en el marco de su política para la igualdad de mujeres y hombres.

2. Las ayudas se distribuirán de acuerdo con las diferentes modalidades que seguidamente se indican, y cuyas bases reguladoras específicas de concesión se acompañan como anexos:

a) Berdintasunaren arloan lehentasunekoak diren esku-hartze arloei lotutako proiektuak. Honako hauek dira:

– Udal politiketan genero-zeharkakotasuna sustatzea: berdintasunari buruzko prestakuntza, estatistikak eta azterlanak egokitzeta, generoaren araberako eraginaren aurreiazko ebaluazioa, dirulaguntza eta kontratu publikoetan berdintasun klausulak txertatzea, aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzea, eta abar.

– Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa sustatzea.

– Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa lantzea, batez ere gazteekin, eta arreta hobetzea emakumeen ahalduntzearen ikuspegitik.

– Kontziliazio erantzunkidea sustatzea, emakumeek eta gizonen laneko bizitzan, familia bizitzan eta bizitza pertsonalean duten parte-hartzean dauden desberdintasunak gainditzea ahalbidetuko duena eta gizonen zaintzan duten erantzunkidetasuna sustatuko duena.

b) Udaletako ahalduntze espazioen jarduera gisa eratzen diren jarduerak garatzen dituzten proiektuak.

3. Eranskin bakoitzeko proiektu bat aurkeztu ahal izango da, gehienez, udal edo mankomunitate bakoitzeko, baldin eta bi proiektuen baturak eskatutako gehienezko zenbatekoa berrogei mila eurotik (40.000 €) gorakoa ez bada.

4. Diruz lagunduko dira bi urteko epean gauzatzeko jarduketak, deialdiaren urteko urtarrilaren 1etik deialdiaren hurrengo urteko abenduaren 31ra arte.

5. Ez da diruz lagunduko berdintasunerako plan orokorrak diagnostikatzea, egitea eta ebaluatzea, ezta plan sektorialak eta/edo estrategikoak egitea ere, indarkeriaren biktimak diren emakumei arreta emateko protokoloak barne, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak finantzatzeko jarduerak baitira.

6. Gazte jendearen berdintasunerako eta indarkeriaren prebentziorako proiektuen kasuan, gaiarekin zerikusia duten udal politiken esparruan lantzen direnak baino ez dira onartuko, baldin eta udal eskumenekoak badira, hala nola, haurtzaroa eta gazteria edo indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta ez dira onartuko politika horietako batean sartzen ez diren proiektu puntualak eta/edo udal arloekin lankidetzan egiten ez direnak.

7. Jarduera puntualak ez dira diruz lagunduko.

2. *Erakunde onuradunak.*

1. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak jaso ahal izango dituzte Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek –banaka eta/edo bat baino gehiago batera aurkeztuta– eta mankomunitateek, baldin eta proiektu estrategikoak garatu eta abian jarri nahi badituzte emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikaren esparruan, betiere ondoko hiru elementu hauek bilduko dituen berdintasunerako politika garatzeko esparru egonkor bat badute:

- Berdintasunerako plangintza.
- Berdintasunerako politika garatzeko berariazko aurrekontua.
- Plantillan berdintasunean espezializatutako teknikari propioak.

Era berean, honako udal eta mankomunitate hauek ere aurkeztu ahal izango dira deialdira: berdintasunean espezializatutako langileak programen bidez bitarteko funtzionario gisa kontratatuta dituztenak edo beren zerbitzuak sektore publikoko beste erakunde batek, bitarteko propio gisa, kontratatuta ematen dituztenak, baldin eta konpromisoa hartzen badute lanpostua sortzeko eta dagokion lanpostuen zerrendan sartzeko deialdiaren indarraldiko bi urteak amaitu baino lehen.

a) Proyectos ligados a las áreas de intervención prioritarias en materia de igualdad, que consisten en:

– Promover la transversalidad de género en las políticas municipales: formación en igualdad, adecuación de estadísticas y estudios, evaluación previa del impacto en función del género, incorporación de cláusulas de igualdad en las subvenciones y contratos públicos, análisis de los presupuestos desde la perspectiva de género, etc.

– Impulsar el empoderamiento y la participación socio-política de las mujeres.

– Trabajar la sensibilización y prevención de la violencia machista, especialmente con gente joven, y mejorar la atención desde una perspectiva empoderante para las mujeres.

– Promover la conciliación corresponsable que permita superar desigualdades en la participación de mujeres y hombres en la vida laboral, familiar y personal y que promueva la corresponsabilidad de los hombres en el cuidado.

b) Proyectos que desarrollen actuaciones que se configuren como actividades de los espacios de empoderamiento municipales.

3. Se podrá presentar como máximo un proyecto por cada anexo por cada ayuntamiento o mancomunidad, siempre y cuando la cuantía máxima solicitada por la suma de los dos proyectos no supere la cuantía de los cuarenta mil euros (40.000 €).

4. Se subvencionarán actuaciones ejecutadas en un período de dos años, desde el 1 de enero del año de la convocatoria al 31 de diciembre del año siguiente a la misma.

5. No será subvencionable la realización de diagnósticos, elaboración y evaluación de planes generales para la igualdad, ni planes sectoriales y/o estratégicos, incluidos los protocolos de atención de mujeres víctimas de violencia, puesto que son actuaciones financiadas por Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

6. En el caso de proyectos para la igualdad y prevención de violencia con gente joven, sólo se aceptarán aquellos que sean abordados en el marco de las políticas municipales relacionadas con el tema y sobre las que existe competencia municipal como, por ejemplo: infancia-juventud o lucha contra la violencia machista, no teniendo cabida los proyectos de carácter puntual y/o que no se enmarquen en alguna de dichas políticas ni se realicen en colaboración con las correspondientes áreas municipales.

7. En ningún caso se subvencionarán actuaciones puntuales.

2.<sup>a</sup> *Entidades beneficiarias.*

1. Podrán acogerse a las subvenciones objeto de estas bases, los ayuntamientos –concurriendo individualmente y/o conjuntamente más de uno– y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa que deseen desarrollar y poner en marcha proyectos estratégicos en el marco de su política para la igualdad de mujeres y hombres, siempre y cuando cuenten con un marco estable para el desarrollo de la política para la igualdad que contenga estos tres elementos:

- Planificación en igualdad.
- Presupuesto específico para desarrollar su política para la igualdad.
- Personal técnico propio especializado en igualdad en plantilla.

También podrán presentarse a la convocatoria aquellos ayuntamientos y mancomunidades en las que el personal especializado en igualdad esté contratado en la modalidad de funcionario interino o funcionaria interina por programas o preste sus servicios habiendo sido contratado por otra entidad del sector público, como medio propio, siempre y cuando se comprometan a crear el puesto e incluirlo en la correspondiente relación de puestos de trabajo antes de finalizar los dos años de vigencia de la convocatoria.

2. Nolanahi ere, erakunde onuradunak jardueraren gastuaren aurrekontu osoaren % 20 finantzatu beharko du gutxienez.

3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradun izateko, erakunde eskatzaileak ez dira sartuta egongo Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 12. artikuluko 2., 3. eta 4. zenbakietako debekuetan, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 26.3 artikulukoan ere, eta oinarri hauetan zehazten diren gainerako baldintzak bete beharko dituzte.

### 3. *Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Eskaerak dagokien deialdian ezarritako moduan eta epean formalizatu beharko dira.

### 4. *Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Dirulaguntza jasotzeko interesa duten erakundeek dagokien deialdian zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eskaerarekin batera.

### 5. *Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

1. Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez badituzte identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badute edo zerbait falta bazaie, entitate eskatzaileari eskatuko zaio, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar egun balioduneko epean akats horiek zuzentzeko, eta adieraziko zaio ezen, baldintza hori ez badu betetzen, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkaritzak entitate eskatzaileei eskatu ahalko die aurkeztutako eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro.

### 6. *Laguntza emateko prozedura.*

1. Dirulaguntzak emateko prozedura elkarrekiko norgehiagoka izango da, deialdi eta hautaketa prozedura bakarraren bidez.

2. Prozedura ofizios hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

### 7. *Dirulaguntzen kuantifikazioa.*

Proiektu bakoitzari eman beharreko dirulaguntza honela kuantifikatuko da:

Dirulaguntzaren zenbatekoa izango da proiektuan diruz lagundu daitekeen gehieneko zenbatekoa baremazio koefizientearekin biderkatuta lortzen dena. Baremazio koefiziente hori izango da proiektu horrek lortutako puntuazioa zati 100, betiere ateratzen den zenbatekoak ez badu gainditzen dirulaguntza bakoitzarentzat deialdian ezarritako gehieneko zenbatekoa.

Lehenik eta behin, berdintasunaren arloan lehenetasuna duten esku-hartze arloei lotutako proiektuei dagozkien dirulaguntzak kalkulatu dira. Horretarako, deialdiko kredituaren % 50 bideratuko da. Dirulaguntza horiek kalkulatu ondoren, udalen ahalduntze espazioen jarduera gisa egituratzen diren jarduerak garatzen dituzten proiektuei dagozkien dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatu da Horretarako, deialdiaren kredituaren gainerako % 50 hartuko da kontuan, baita lehenetasuneko lerroa ematetik gera daitekeen soberakina ere, hurrengo arauen kalterik gabe.

Dirulaguntza emateko irizpideak aplikatuta ezarritako kreditua baino zenbateko handiagoa ateratzen bada, eskaeren artean hainbanatuko da eskuragarri dagoen zenbatekoa, eskatutako zenbatekoa kontuan hartuta.

2. En todo caso, la entidad beneficiaria deberá cofinanciar, como mínimo, el 20 % del total del presupuesto del gasto de la actividad.

3. Para obtener la condición de entidad beneficiaria de las subvenciones reguladas en las presentes bases, las entidades solicitantes no deberán hallarse incursas en ninguna de las prohibiciones de los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres y deberán cumplir con los demás requisitos que se señalan en las presentes bases.

### 3.ª *Forma y plazo de presentación de las solicitudes.*

Las solicitudes deberán formalizarse en la forma y plazo que se fije en la convocatoria correspondiente.

### 4.ª *Documentación a presentar con la solicitud.*

Las entidades interesadas en la concesión de estas subvenciones deberán presentar junto con la solicitud los documentos que se determinen en la convocatoria correspondiente.

### 5.ª *Subsanación y documentación complementaria.*

1. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de ese mismo texto legal.

2. La Secretaría del Área del Diputado General de la Diputación Foral de Gipuzkoa podrá requerir a las entidades solicitantes cuanta documentación e información complementaria considere necesarias para la adecuada evaluación y resolución de la solicitud presentada.

### 6.ª *Procedimiento de concesión.*

1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

2. El procedimiento se iniciará de oficio, mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

### 7.ª *Cuantificación de las subvenciones.*

La subvención a otorgar a cada proyecto se cuantificará en la forma siguiente:

El importe de la subvención será el resultado de multiplicar la cantidad máxima subvencionable del proyecto por un coeficiente de baremación consistente en la puntuación obtenida por el mismo dividida entre 100, siempre que el importe resultante no supere el importe máximo por subvención establecido en la convocatoria.

Se calculará en primer lugar el importe de las subvenciones correspondientes a los proyectos ligados a las áreas de intervención prioritarias en materia de igualdad. A tal efecto, se destinará un importe correspondiente al 50 % del crédito de la convocatoria. Una vez calculadas dichas subvenciones, se calcularán las correspondientes a los proyectos que desarrollen actuaciones que se configuren como actividades de los espacios de empoderamiento municipales para lo cual se tendrá en cuenta el 50 % restante del crédito de la convocatoria, así como el remanente que pudiera resultar de la concesión de la línea preferente, sin perjuicio de las siguientes reglas.

Si de la aplicación de los criterios de concesión resultase un importe superior al del crédito establecido, se prorrateará el importe disponible entre las solicitudes, en atención al importe solicitado.



Aitzitik, deialdian kreditu soberakina geratzen bada, soberakin hori proiektu bakoitzari banatuko zaio, horrela: soberakina banatutako guztizko kopuruarekin zatituko da, eta biderkatuko da, lehendabizi, lortutako baremazio koefizientearekin, eta, ondoren, proiektu bakoitzean eskatutako kopuruarekin.

#### 8. *Finantzazioa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen dirulaguntzak deialdiaren urteko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira. Deialdian ezarriko da zein aurrekontu-kredituren kargura finantzatu diren dirulaguntzak.

2. Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak bateragarriak izango dira xede bera duten bestelako dirulaguntzekin, laguntzekin, sarrerekin eta baliabideekin, emailea Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko erakundeetako edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatu izan, eragotzi gabe gai horren inguruan beste dirulaguntza batzuen araudiak esaten duena.

3. Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo dirulaguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.

9. *Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

1. Dirulaguntza hauek emateko prozedura Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bideratuko du.

2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko teknikariek aztertuko dituzte eskaerak, eta horien balorazioari buruzko txosten bat prestatuko dute, zeina Ebaluazio Batzordearen eskuetan jarriko baitute. Horrek ere ebazpen proposamen bat egingo du, zeinean zehaztuko baita egindako ebaluazioaren emaitza, eta zeina helaraziko baitio organo eskudunari, onetsi dezan.

Ebaluazio Batzordeko kide izango dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoko zuzendari nagusia, zeinak batzordea zuzenduko duen; Berdintasuneko zerbitzuburua; Berdintasun Zerbitzuko funtzionario bat; Kontuhartzaitletza eta Auditoretza Zerbitzuko ordezkari bat; eta Diputatu Nagusiaren Alorreko Idazkari-tzako teknikari bat, zeina batzordeko idazkaria izango den.

#### 10. *Dirulaguntzak emateko ebazpena.*

1. Diputatu nagusia da organo eskuduna oinarri hauetako dirulaguntzak ematea ebazteko.

2. Deialdiaren ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta, argitalpen egunaren biharamunetik hasita, jakinarazpena egintzat joko da lege ondorio guztietarako.

3. Laguntzak emateko prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere, urteko deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, data horretan hasten baita prozedura ondorio guztietarako.

4. Aurreko atalean adierazitako gehienezko epea amaitzerako ez bada ebazpenik jakinarazi, interesatuek administrazioaren isaltasunez beraien eskaerak ezetsiak izan direla uler dezakete.

Si, por el contrario, resultase crédito sobrante en la convocatoria, dicha cantidad sobrante se repartirá a cada proyecto dividiendo la cantidad sobrante entre la cantidad total repartida y se multiplicará por el coeficiente de baremación obtenido y, a continuación, por la cantidad solicitada en cada proyecto.

#### 8.ª *Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

9.ª *Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

1. La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres.

2. Las solicitudes serán analizadas por personal técnico del Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres, que elaborará un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

Formarán parte de la Comisión Evaluadora la directora general del Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres, que presidirá la misma; la jefa del Servicio de Igualdad; una persona funcionaria del Servicio de Igualdad; una persona representante del Servicio de Intervención y Auditoría y una persona técnica de la Secretaría del Área del Diputado General, en calidad de secretario/a de la comisión.

#### 10.ª *Resolución de concesión.*

1. El diputado general será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

3. El plazo máximo que se establece para resolver y notificar la resolución del procedimiento de concesión de las ayudas es de seis meses, computados a partir del día siguiente al de la publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de la correspondiente convocatoria anual, que implica la iniciación del procedimiento a todos los efectos.

4. Transcurrido el plazo máximo señalado en el apartado anterior sin haberse notificado la resolución, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes por silencio administrativo.

### 11. Entitate onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.

Entitate onuradunek dirulaguntza onartzen badute, nahitaez bete beharko dituzte onuradun gisa dagozkien obligazioak, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta foru arau hori garatzeko erregelamenduak (apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuaz onartutakoak), izaera orokorrez ezartzen dituztenak. Horiez gain, beste betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoak deitzen dituen bileretan, diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia dutenetan, parte hartzea; parte-hartzea ahalik eta handiena izan dadin, behar diren bide eta bitartekoak ezarriko ditu Organoak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, materialen argitalpenetan eta zabal-kunde jardueretan, hala agintzen baitu Gipuzkoako Foru Aldundian hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen foru dekretuak.

c) Bermatzea hizkuntza eta irudiak ez direla modu sexistan erabiliko komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan, genero-estereotipoak erreproduzitu daitezkeen ekidinez eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna aktiboki bultzatuz.

d) Diruz lagundutako proiektuen edo jarduketan finantzazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza izan duela jakinaraztea. Horretarako, karteletan, plaka oroigarrietan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudi instituzionala jasoko da eta finantzaketara publikoaren aipamena egingo da; gauza bera hedabideetan ere.

### 12. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1. Diruz lagundu daitezkeen gastuak dira diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe dagozkionak, behar-beharrezkoak gertatzen direnak eta oinarri arautzaile hauetan jasotako epearen barruan egiten direnak. Adibidez: aholkularitza eta laguntza teknikoa, prestakuntza, joan-etorriak, aretoak alokatztea, zabalkundea, materiala, inprimatzeak, eta abar.

Bidaia-gastuen gehieneko tarifak bat etorriko dira Eusko Jaurlaritzaren 16/1993 Dekretuak, otsailaren 2koak, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzkoak, ezarritako baremoarekin.

Diruz lagundu daitezkeen elementuen erosketa kostua ezin daiteke inoiz merkatuko balioa baino handiagoa izan.

2. Egindako gastutzat hartuko da justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindu dena, eta baita ere dirulaguntza jaso duen entitate onuradunak oraindik ordaindu gabe duena ere, baldin eta gastu hori justifikatuta badago dagozkion fakturen edo balio bereko frogagiriaren bidez.

3. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa handiagoa bada 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, kontratu txikietarako ezarritakoa baino, entitate onuradunak hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu behar ditu gutxienez, obra edo zerbitzua egiteko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu baino lehen. Alabaina, hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, obra, zerbitzu edo ondasunaren ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago hura egin edo emateko behar adinako entitaterik edo gastua eginga badago dirulaguntza eskatu aurretik.

Aurkezten diren eskaintzak dirulaguntzaren justifikazioan edo, kasua bada, haren eskaeran azaldu behar dira, eta hautaketa egiteko eragimena eta ekonomia izango dira aplikatuko diren irizpideak. Proposamen ekonomikorik merkeena aukeratzeko ez denean, erabakia berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

### 11.<sup>a</sup> Obligaciones y compromisos de las entidades beneficiarias.

La aceptación de la subvención por parte de las entidades beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y en su reglamento de desarrollo, aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril. Estarán obligadas, además, a lo siguiente:

a) Participar en las reuniones que, en relación con la actuación subvencionada, convoque el Órgano para la Igualdad de mujeres y hombres, para lo que se establecerán los cauces y medios necesarios que faciliten la máxima participación.

b) Garantizar el uso de las lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en las comunicaciones, en la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado, de acuerdo con lo dispuesto en el decreto foral que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Garantizar el uso no sexista del lenguaje y de las imágenes en todas las comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc., evitando la reproducción de estereotipos de género y promoviendo activamente la igualdad de mujeres y hombres.

d) Dar la adecuada publicidad a la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la financiación de los proyectos o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de su imagen institucional, así como de leyendas relativas a la financiación pública en carteles, placas conmemorativas, materiales impresos, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

### 12.<sup>a</sup> Gastos subvencionables.

1. Se consideran gastos subvencionables, aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en estas bases reguladoras, como pueden ser: asesoría y asistencia técnica, formación, desplazamientos, alquiler de salas, difusión, materiales, imprenta, etc.

Las tarifas máximas de los gastos relativos a viajes se ajustarán al baremo establecido por el Decreto 16/1993, de 2 de febrero, del Gobierno Vasco, sobre indemnizaciones por razón de servicio.

En ningún caso el coste de adquisición de los gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

2. Se considerará gasto realizado el que ha sido efectivamente pagado con anterioridad a la finalización del período de justificación y también el que, estando pendiente de pago por la entidad beneficiaria de la subvención a esta fecha, se encuentre justificado mediante las correspondientes facturas o documentos de valor probatorio equivalente.

3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiere realizado con anterioridad a la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

### 13. Ordainketa.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa, jarduera egin dela justifikatu ondoren, zatikako bi ordainketaren bidez ordainduko da, erakunde eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, eta aurrekontuko baliabideak kontuan hartuta.

2. Emandako dirulaguntzaren % 50 ordainduko da urte horretako urtarrilaren 1etik une horretara arte izandako gastuen kontu zurigarri partziala aurkeztu ondoren. Kontu zurigarri partziala deialdiaren urteko azaroaren 15a baino lehen aurkeztuko da, oinarri orokorretako 14. klausulan aipatzen den dokumentazioarekin.

Kontu zurigarri partzial horrek jaso beharko du, gutxienez, gastu diruz lagungarriaren % 50. Hori baino gutxiagokoa baldin bada, aurkeztutako zuriaketaren adinako zenbatekoa ordainduko da, eta horrek emakidaren ebazpena alda dezake, dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituz justifikatu gabeko kopuruan.

Gainerako % 50a ordainduko da oinarri orokorren 14. klausulan aipatzen den proiektuaren kontu zurigarria aurkeztu ondoren. Proiektuaren kontu zurigarria deialdiaren hurrengo urteko azaroaren 15a baino lehen aurkeztuko da.

Deialdiaren hurrengo urtean garatutako jardueraren bat azaroaren 15erako guttiz amaitu ez bada, urte horretako abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko da.

Kasu horretan, aurkeztuko den justifikazio kontua behin-behinekoa izango da, eta bertan sartuko dira diruz lagundutako jardueren amaitu gabeko zatiaren aurrekontuak edo bestelako justifikazio agiriak. Horri dagokionez, dirulaguntza alde aurretik ordainduko da, eta gastu horien justifikazioa deialdiaren ondorengo bigarren urteko martxoaren 1a baino lehen osatu beharko da.

### 14. Dirulaguntzen justifikazioa.

1. Oinarri hauetako dirulaguntzak oinarri orokorretako 13. klausulan ezarritako epean zurituko dira, egindako jardueren kontu zurigarria aurkeztuz. Kontu zurigarriak honako hauek bilduko ditu:

a) Jarduketa memoria, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak biltzen dituen.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastuak sailkatzen dituen zerrenda, non adieraziko diren hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen data eta, hala badagokio, ordainketa data. Dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutako aurrekontuarekiko izandako desbiderapenak adieraziko dira.

c) Fakturak edo merkatuko trafikiko juridikoan edo administrazioan pareko froga balioa duten gainerako dokumentuak eta beste gastu batzuen egiaztagirak –aurreko paragrafoan aipatutako zerrendakoak–; eta, hala badagokio, ordainketa egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko izan diren beste diru sarrera edo dirulaguntzak, zenbatekoa eta jatorria barne, xehetasunez jasotzen dituen zerrenda.

e) Diruz lagundutako proiektuaren ondorioz materialak argitaratzean eta hedapen jarduerak burutzean sortutako dokumentuen (bideoak, liburuak,...) ale bat. Artxiboaren tamaina dirulaguntzen atariak baimendutako gehieneko tamaina (10 MB) baino handiagoa baldin bada, posta elektronikoa bidali daiteke: berdintasunadirulaguntza@gipuzkoa.eus. Posta elektronikoa bakoitzak 35 MB izango ditu gehienez.

f) Hala behar denean, ordainagiria, aplikatu gabeko soberrakinen kasuan.

### 13.ª Abono.

1. El importe de la subvención, previa justificación de la realización de la actividad, se abonará mediante dos pagos fraccionados, con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias.

2. La subvención concedida se abonará en un 50 % tras la presentación con anterioridad al 15 de noviembre del año de la convocatoria, de una cuenta justificativa parcial de los gastos en que hayan incurrido desde 1 de enero de dicho año hasta la fecha, presentando la documentación que alude a la cláusula 14.ª de las bases generales.

Dicha cuenta justificativa parcial deberá comprender, como mínimo, el 50 % del importe del gasto subvencionable. Si el porcentaje es menor, el abono se realizará por la cuantía de la justificación presentada, lo cual puede dar lugar a la modificación de la resolución de concesión, reduciendo el importe de la subvención en la cuantía no justificada.

El 50 % restante se abonará tras la presentación con anterioridad al 15 de noviembre del año siguiente al de la convocatoria, de la cuenta justificativa del proyecto que establece la cláusula 14.ª de las bases generales.

En caso de que alguna de las actividades que se desarrollen en el año siguiente al de la convocatoria no hubiera finalizado en su totalidad para el 15 de noviembre, deberá finalizar en todo caso antes del 31 de diciembre de dicho año.

En este supuesto, la cuenta justificativa que se presentará tendrá carácter provisional y en la misma se incorporarán los presupuestos u otra documentación justificativa de la parte sin finalizar de las actividades subvencionadas, con respecto a la cual el pago de la subvención tendrá el carácter de abono anticipado, debiendo completarse la justificación de tales gastos con anterioridad al 1 de marzo del segundo año posterior al de la convocatoria.

### 14.ª Justificación de las subvenciones.

1. Las subvenciones objeto de las presentes bases se justificarán en el plazo fijado en la cláusula 13.ª de las bases generales, mediante la presentación de una cuenta justificativa de las actividades realizadas, que contendrá:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos.

b) Una relación clasificada de los gastos de la actividad subvencionada, con identificación de la persona acreedora y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago. Se indicarán las desviaciones acaecidas en relación con el presupuesto presentado con la solicitud de subvención.

c) Las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y justificantes de otros gastos, incorporados en la relación a que se hace referencia en el párrafo anterior y, en su caso, la documentación acreditativa del pago.

d) Una relación detallada de otros ingresos o subvenciones que hayan financiado la actividad subvencionada, con indicación del importe y su procedencia.

e) Un ejemplar de los documentos generados (videos, libros...) por la edición de materiales y en las actividades de divulgación que se deriven de la realización del proyecto subvencionado. En caso de que el tamaño del archivo exceda el tamaño máximo permitido en el portal de subvenciones (10 MB), se podrá enviar a la dirección de email: berdintasunadirulaguntza@gipuzkoa.eus siendo el máximo de cada email 35 MB.

f) En su caso, la carta de pago en el supuesto de remanentes no aplicados.

g) Hala badagokio, erakundeko idazkariaren ziurtagiria, egituran berdintasun teknikariaren lanpostua sortu dela eta, beraz, dagokion lanpostuen zerrendan sartu dela egiaztatzen duena.

2. Organo laguntza-emaileak egiaztatuko du, batetik, dirulaguntzaren justifikazioa egokia dela eta jarduera burutu dela; eta, bestetik, laguntza emateko helburua bete dela.

Egiaztapen horretatik ondorioztatuko balitz diruz lagundu daitekeen gastua emandako dirulaguntza baino txikiagoa dela, edo dirulaguntza zuzitzea ezarritako baldintzak edo laguntzaren xede zena ez dela bete, osorik edo zati batean, dirulaguntza jaso duen erakundeari horren berri emango zaio, egiaztapenaren emaitzekin batera; eta hasiera emango zaio dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortzeko prozedurari edo, hala badagokio, dirulaguntza osorik edo zati batean itzultzeko 16. oinarrian aurreikusitako prozedurari.

3. Dirulaguntza zuzitzea ezarritako epean ez bada 1. atalean adierazitako dokumentazioa aurkezten, eskumena duen organoak entitate onuradunari errekerimendua egingo dio 15 eguneko epean aurkez dezan. Epe berri hori amaitutakoan frogagiriak ez aurkeztu izanak eragingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo 16. oinarrian aurreikusitako itzultzeko prozedura hastea. Hori guztia, salbuespen gisa, baimendu daitezkeen balizko luzapenen kalterik gabe.

#### 15. Dirulaguntza emateko ebazpenaren aldaketa.

1. Entitate onuradunek dirulaguntza ematen duen organoari eskatu ahal izango diote, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu aurretik, ebazpena alda dezan: finkatutako epeak luzatzeko, emandako dirulaguntza murrizteko edo jardueran bildutako ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek aurreikusi gabeko gertaeren ondorio direnean eta jardueraren helburua lortzeko beharrezkoak direnean baimenduko dira, betiere dirulaguntzaren xede aldatzen ez bada eta hirugarrenen eskubideak kaltezen ez badira.

2. Dirulaguntza jasotzen duen entitateak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren berariazko baimena beharko du, hasierako proiektuan aldaketa handiak egin nahi baditu. Edonola ere, 1. atalean ezarritakoa bete beharko da.

3. Organo emaileak ere ofizioz aldatu dezake dirulaguntza ematea onartzen duen ebazpena, aurrez entitate interesatuarekin bilduta eta funtsak aplikatu aurretik, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan izandako baldintzen aldaketak helburu zuen interes publikoa lortzea eragozten edo zailtzen badu eta baldin eta onuradunari ez bazaio kalte ekonomikorik eragiten.

#### 16. Dirulaguntzen itzulketa.

1. Entitate onuradunak ez baditu oinarri orokor hauetan, espezifikotan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, dirulaguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio eta dirulaguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historiko dirulaguntzei buruzkoak, 35. artikuluan, eta 24/2008 Foru Dekretuak, apirilaren 29koak, onartutako garapen araudiko 63. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoari jarraikiz; eta hortik ondorioztatutako erantzukizunei ere aurre egin beharko die, foru arau horren 49. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

